

Uribe Eskualdea

Dokumentu hau egiteko, 1986-2009 aldiko minbiziaren erregistroko datuak eta "EAEko minbiziaren herriz herriko atlas, 2003-2008" argitalpeneko emaitzak erabili dira. Helburua da azaltzea eskualdeko populazioan minbiziak zer-nolako bilakaera izan duen azken bi hamarkadatan eta, bide batez, udalerrietako informazioa nabarmentzea.

Adinaren arabera estandarizatutako (Europako populazio estandarrekin) eskualdeko tasen bilakaera modu grafikoan azaltzen da Erkidego Autonomoarekin batera; estimazioa egiteko JoinPoint log linealaren erregresio eredua erabili da. Denboran zeharreko bilakaerarekin batera, probabilitateen mapa ere erakusten da, bertan azalduz eskualdeko udalerriek daukaten arrisku-probabilitate handiago edo txikiagoa EAEko batez bestekoarekin alderatuta. Azkenik, kutxa-diagramek erakusten dute arriskua nola banatzen den Bizkaiko eskualdeetako udalerrietan, EAEkoarekiko.



Emaitza aipagarrien laburpena

Kokapen guztiak (♂/♀)

Intzidentzia tasetan goranzko joera izan da eskualdean: gizonengan %1,02, eta emakumeengan %1,94. Arrisku probabilitate mapan Erandioko gizonak azaltzen dira EAEko probabilitate baino handiagoaz.

Buru eta lepoa (♂)

Tasek beheranzko joera dute, %0,7 gutxiago urtean. Arrisku probabilitate handiagoz azaltzen diren herriak: Leioa, Erandio, Mungia eta Zamudio.

Kolon-ondeste (♂/♀)

Goranzko joera erakusten dute tasek eskualdean, urtero %3,2ko hazkuntza, bai gizonengan zein emakumeengan. Gizonezkoen tasak EAEkoen gainetik dabilta. Arrisku probabilitate mapan Erandioko gizonak eta Leioako emakumeak agertzen dira nabarmenduta.

Birika (♂/♀)

Eskualdean tasa doituak EAEkoak baino altuagoak dira emakumeengan eta goranzko joeraz (urtero %4,5 gehiago); baxuagoak gizonengan, eta beheranzko joeraz (urtero %1,9 gutxiago). Erandio eta Leioako gizonezkoek EAEko arrisku maila altuago erakusten dute.

Larruzaleko melanoma (♀)

Tasak apalak dira, baina goranzko joeraz, urtero %3,3ko igoeraz. Ez da agertzen arrisku probabilitate handiagoko herririk.

Mesotelioma (♂)

Kasu kopuru urriak baina nabarmenkiro kontzentratuta Leioa eta Erandion.

Bularra (Mama) (♀)

Tasen bilakaerak goranzko joeraz, %2,53ko igoera urtero, EAEkoen pare. Arrisku probabilitate handiagoz Getxo azaltzen da.

Prostata (♂)

Goranzko joeraz, urteko %5,09 hazkuntza mantenduz, dena dela, EAEko arrisku probabilitate txikiagoaz azaltzen dira eskualdeko herriak.

Tiroidea (♀)

Urtero tasek %7,93 gorantz, baina ez da agertzen EAEn ematen den azken urtetako jautzia (%23,1ko hazkuntza). Eskualdeko herriek arrisku probabilitate txikiak agertzen dituzte, EAEkoekin alderatuz.

2
0
1
3

HARREMANA:
Epidemiologia Unitatea
Osasun Publikoko Lurralde Ordezkaritza.
Bizkaia.
Recalde Zumardia, 39A
4808 Bilbo



GIZONAK

	Intzidentzia tasen tendentzia, <i>JoinPoint</i> , 100,000 biztanleko Adinarekiko doituak (erreferentzi populazioa: Europa)	Arriskua EAEn baino handiagoa izateko probabilitatea
Kokapen guztiak (CIE-10: C00-C99, ez C44)		
Burua eta Lepoa (CIE-10: C00-C14)		
Kolon-ondeste (CIE-10: C18-C20)		
Birika (CIE-10: C33-C34)		
Mesotelioma (CIE-10: C45) *datu urriegiak JoinPointez joerarik antzemateko. Puntuak urteroko tasa doituak adierazten dute.		
Prostata (CIE-10: C61)		
	<p>— Urbe — EAE</p>	<p> ■ < 0.10 ■ 0.10 - 0.20 0.20 - 0.80 ■ 0.80 - 0.90 ■ ≥ 0.90 </p>

EMAKUMEAK

	Intzidentzia tasen tendentzia, <i>JoinPoint</i> , 100,000 biztanleko Adinarekiko doituak (erreferentzi populazioa: Europa)	Arriskua EAEn baino handiagoa izateko probabilitatea
Kokapen guztiak (CIE-10: C00-C99, ez C44)		
Kolon-ondeste (CIE-10: C18-C20)		
Birika (CIE-10: C33-C34)		
Larruzazaleko melanoma (CIE-10: C43)		
Mama (CIE-10: C50)		
Tiroidea (CIE-10: C73)		
	<p>— Urbe — EAE</p>	<p> ■ < 0.10 ■ 0.10 - 0.20 0.20 - 0.80 ■ 0.80 - 0.90 ■ ≥ 0.90 </p>

Eskualdetako Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua

